

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Dalton JG produktu berritzaile bat denez, eta ez denez lehen egin, ordu asko emango ditugu produktua diseinatzen. Horrela, diseinadore baten laguntzarekin, produktuaren diseinu egoki bat lortuko dugu. Produktuaren diseinua funtsezko jarduera bat denez, denborarekin betaurreko modelo desberdinak aterako ditugu.

Dalton JG-ren materialei dagokionez, Sunglasses color enpresak betaurrekoak egiteko materialak erosteaz arduratuko da. Horrela, haiek betaurrekoak egiteaz arduratuko dira. Guk, betaurrekoak eskatu eta ordainduko ditugu. Gure ofizinan gordeko ditugu. Ofizina, Astigarragan egongo da. Hortik, bezeroen deiak edo web- orriko eskaerak hartuko ditugu, produktua prestatu, eta Astigarragako enpresa bat, Transportes Donostiarra, arduratuko da mugitzeaz.

Produktua gehiago saltzeko eta jende gehiagori iristeko, Instagram, Twitter, Facebook eta hainbat sare sozialetan profilak sortu ditugu. Horrela, gure bezeroekin harremanetan jaritzeko aukera izango dugu. Gainera, web-orri bat izango dugu, non geure produktua salduko dugu. Web- orrian, produktuari buruz komentatzeko atari bat egongo da, bezeroek beren iritzia partekatu dezaten.

Azkenik, gure lokala, bulego eta biltegi bezala erabiliko dugu. Bertan guk egingo dugu lana beste langileekin batera, eta gertu dauden bezeroak gurekin harremanetan jar daitezke ofizinarara joanez.